



# Europako Etiketa Ekologikoa Ezartzeko Eskuliburua:

## Turismo- ostatuak

2004ko uztaila



**Zer da  
Europako  
Etiketa  
Ekologikoa**

# Zer da Europako Etiketa Ekologikoa



- **Europako Etiketa Ekologikoa** da ingurumenaren aldetik errespetuzkoak diren produktuak eta zerbitzuak aitortzeko eta identifikatzeko sistema ofiziala. Sistema **egiazkoa, zorrotza eta borondatezkoa** da, eta ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produktuak eta zerbitzuak sustatu nahi ditu, **ingurumenaren babes-maila handia lortzen laguntzeko**.
- EBren etiketa ekologikoaren logotipoa, beraz, **ingurumen-kalitatearen bereizgarri** bat da, eta horrek erraztu egiten du ingurumen-inpaktu txikiagoak eta bere kategoria bereko produktuak baino kalitate berekoak edo handiagokoak batzen dituzten produktuak identifikatzea.
- Kontsumitzaileentzat sinbolo **fidagarria eta erraz ezagutzeko modukoa da**.

# Zer da Europako Etiketa Ekologikoa




- Europako Etiketa Ekologikoa I. motako ekoetiketa da, eta ISO 14024 araua betetzen du.
- EBren etiketa ekologikoa lortu ahal izateko, produktuek eta/edo zerbitzuek **ingurumen-irizpide zorrotzak bete** behar dituzte, eta irizpide horiek **produktuaren edo zerbitzuaren bizi-ziklo osoa** hartzen dute kontuan.
- Turismo-ostatuen kasuan, bizi-zikloan sartzen dira erabilitako produktuak (papera, garbiketa-produktuak, etab.), kontsumitutako energia eta ura, sortutako hondakinak edo pertsonen zein materialen garraioak.

# Zer da Europako Etiketa Ekologikoa



- EBren etiketa ekologikoak Europaren **ekonomia zirkularrerako** trantsizioa sustatzen du, ekoizpena zein kontsumo jasangarria babestuz.
- Ingurumen-etiketatzeko sistema horren ezaugarriei eta haren irizpide gardenei esker, kontsumitzaileek **modu kontzientean har ditzakete erosteko erabakiak**, produktuen kalitatea arriskuan jarri gabe.
- Era berean, Europako Etiketa Ekologikoa produktu iraunkorrak eta konpongarrak diseinatzea eta/edo ingurumenarekiko arduratsuak diren zerbitzuak eskaintzea aukeratzen duten enpresa fabrikatzaile/jabeentzako **saria** da, berrikuntza eta baliabideen aurrezpena sustatuz.



**TURISMO-  
OSTATUETARAKO Europako  
etiketa ekologikoa ematea  
arautzen duen erabakia**

BATZORDEAREN 2017/175 (EB) ERABAKIA,  
2017ko urtarrilaren 25ekoa, turismo-  
ostaturako EBren etiketa ekologikoaren  
irizpideak ezartzeari buruzkoa





# **Nire turismo-ostatua erregistratzeko urratsak**

# Nire turismo-ostatua erregistratzeko urratsak

1. Nire ostatua haren kategoriaren irismenaren barruan dagoela egiaztatzea
2. Erabakiaren iraungitze-data egiaztatzea
3. Zerbitzuak lege-baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzea
4. Zerbitzuak ebaluatzeko eta egiaztatzeko irizpideak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea
5. Organo eskudunarekin harremanetan jartzea, izapidetu beharreko espedientearen edo espedienteen irismena ezartzeko
6. Dokumentazioa formatu egokian prestatzea
7. Eskaera egitea eta dokumentazioa aurkeztea Inguruneten bidez
8. Tasak ordaintzea
9. Organo eskudunaren bisita jasotzea
10. Hala badagokio, ezarritako zuzenketa-errekerimenduei erantzutea
11. Europako Etiketa Ekologikoa onartzea (egiaztapen-txostena)
12. Ziurtagiria eta kontratua edo ebazpena ematea
13. Enpresak kontratua sinatuta itzultzea
14. Ostatuak EBren katalogoan sartzea

# 1. Nire ostatua haren kategoriaren irismenaren barruan dagoela egiaztatzea

<b>Deskribapena</b>	Ostatu-kategoria arautzen duen Erabakiaren artikuluetan egiaztatzea nire ostatua, bere berezitasunekin, Erabaki horren irismenaren barruan dagoela.
<b>Harremana/Lekua</b>	ECOLABELen web-orrian, zehazki "PRODUCT GROUPS AND CRITERIA" atalean, "EU ECOLABEL FOR BUSINESSES" arloan, <b>Tourist Accommodation</b> epigrafean, Batzordearen Erabakia deskargatu ahal izango dugu. Erabakiak eta ondorengo aldaketak "Current criteria" epigrafean aurkituko ditugu. Erabakiaren barruan, artikulua kontsultatuko ditugu, ostatua haren irismenaren barruan dagoen egiaztatzeko.
<b>Linkak</b>	<a href="https://ec.europa.eu/environment/ecolabel/products-groups-and-criteria.html">https://ec.europa.eu/environment/ecolabel/products-groups-and-criteria.html</a>

## EU Ecolabel-Holiday accommodation

With the EU Ecolabel, tourist accommodation and campsites offer an eco-friendly and high quality alternative to conventional hotels and campsites.

[Tourist Accommodation Page](#)



The EU Ecolabel holiday accommodation group covers tourist accommodation such as hotels and campsites.

The EU Ecolabel guarantees that certified accommodation has optimised environmental and waste management, and reduced energy consumption, water consumption, transport emissions and food waste.

Check out the dedicated Tourism Accommodation webpage to know what is in for consumers and tourism professionals. You will also find material to use in promotional activities

[Tourist Accommodation Catalogue](#)

## Tourist accommodation

Current Criteria [Commission Decision \(EU\) 2017/175 of 25 January 2017](#)

[Consolidated text](#)

Validity 30 June 2025

Application pack / User manual [User Manual - Tourist Accommodation](#)

Miscellaneous [Final Technical Report \(2016\)](#)

2.2.2017

ES

Diario Oficial de la Unión Europea

L 28/9

## DECISIONES

DECISIÓN (UE) 2017/175 DE LA COMISIÓN  
de 25 de enero de 2017

relativa al establecimiento de los criterios de la etiqueta ecológica de la UE para el alojamiento turístico

*[Notificada con el número C(2017) 2991]*

Artículo 1

1. La categoría de productos «alojamiento turístico» incluirá la prestación de servicios de alojamiento turístico y servicios de *camping* y cualquiera de los siguientes servicios auxiliares en el marco de la gestión del proveedor de alojamiento turístico:

- 1) servicios de restauración;
  - 2) instalaciones recreativas o de bienestar físico;
  - 3) zonas verdes;
  - 4) locales para actos específicos como congresos de empresas, reuniones o actividades de formación;
  - 5) instalaciones sanitarias, lavabos y cocinas o centros de información a disposición de turistas, viajeros e inquilinos de *camping* para uso colectivo.
2. Quedan excluidos de la categoría de productos «alojamiento turístico» los servicios de transporte y viajes de recreo.

# 1. Nire ostatua haren kategoriaren irismenaren barruan dagoela egiaztatzea

## Adibidea

Ostatua, zeinarentzat etiketa lortu nahi dudan, karabanentzako bakarrik den kanpin bat da. "Tourist Accommodation"erako "Current criteria" atala kontsultatzean, erabaki bat eta zuzenketa bat daudela ikusiko dugu:

- Batzordearen 2017/175 (EB) Erabakia, 2017ko urtarrilaren 25ekoa
- 2017ko urtarrilaren 25eko Batzordearen 2017/175 (EB) Erabakiaren akatsen zuzenketa

Erabakiaren irismena frogatu beharko dugu, eta zuzenketak hura aldatzen ez duela egiaztatu. Erabaki horren 1. artikulua honako hau ezartzen du:

1. «Turismo-ostatua» produktuen kategoriak turismo-ostatuko zerbitzuak eta kanpineko zerbitzuak barne hartuko ditu, baita turismo-ostatuko hornitzailearen kudeaketaren esparruan honako zerbitzu osagarri hauetako edozein ere:
  - 1) jatetxe-zerbitzua;
  - 2) jolas-instalazioak edo ongizate fisikokoak;
  - 3) berdeguneak;
  - 4) berriazko ekitaldietarako lokalak, hala nola enpresa-biltzarretarako, bileretarako edo prestakuntza-jardueretarako;
  - 5) osasun-instalazioak, konketak eta sukaldeak edo turisten, bidaiarien eta erabilera kolektiborako kanpineko maizterren eskura dauden informazio-zentroak.
2. «Turismo-ostatua» produktuen kategoriatik kanpo geratzen dira garraio-zerbitzuak eta aisialdi-bidaiak.

Bestalde, 2. artikulua honako hau ezartzen du:

Erabaki honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

- 2) «*kanpin*-zerbitzuak», turistei, bidaiariei eta maizterrei honako egitura hauetarako hornitutako partzelak eskaintzea: kanpin-dendak, karabanak, kanpatzeko furgonetak, autokarabanak, bungalowak eta apartamentuak, baita osasun-instalazio pribatuak edo partekatutakoak ere, zenbateko bat ordaintzearen truke;

Beraz, gure kanpinak BAI izango du Europako Etiketa Ekologikoa eskuratzeko aukera.

# 2. Erabakiaren iraungitze-data egiaztatzea

## Deskribapena

Batzordearen erabakiek erabakiaren beraren iraungitze-data adierazten dute. Data hori iritsita, eta Europako Batzordeak berritzen ez badu, Erabakia iraungi egingo da eta beste Erabaki bat argitaratuko da irizpide zorrotzagoekin. Behin puntu horretara iritsita, iraungitako erabakiarekin lortutako etiketak baliozkoak izaten jarraitzen dute epe batean (normalean 6-12 hilabete), baina jada ezinezkoa izango da aurreko irizpideekin etiketa berri bat lortzea. Enpresa batek etiketa bat lortu nahi badu, **Erabakiaren iraungitze-data** gertuegi ez dagoela **egiaztatzea gomendatzen da**; izan ere, bestela, enpresak egiten duen ahalegina denbora labur baterako Etiketa lortzea baino ez du sarituko.

## Harremana/Lekua

ECOLABELen web-orrian, EU ECOLABEL FOR BUSINESSES delakoaren PRODUCT GROUPS AND CRITERIA atalean, **Tourist Accommodation** epigrafean, baliozkotasun-data kontsultatu ahal izango dugu.

## Linkak

<https://ec.europa.eu/environment/ecolabel/products-groups-and-criteria.html>

### EU Ecolabel-Holiday accommodation

With the EU Ecolabel, tourist accommodation and campsites offer an eco-friendly and high quality alternative to conventional hotels and campsites.

[Tourist Accommodation Page](#)

The EU Ecolabel holiday accommodation group covers tourist accommodation such as hotels and campsites.

The EU Ecolabel guarantees that certified accommodation has optimised environmental and waste management, and reduced energy consumption, water consumption, transport emissions and food waste.

Check out the dedicated Tourism Accommodation webpage to know what is in for consumers and tourism professionals. You will also find material to use in promotional activities

[Tourist Accommodation Catalogue](#)



### Tourist accommodation

Current Criteria [Commission Decision \(EU\) 2017/175 of 25 January 2017](#)

Validity

Application pack / User manual [User manual for tourist accommodation](#)

Miscellaneous [Final Technical Report \(2016\)](#)

#### Webinar:

- [Introduction on the EU Ecolabel \(2021\)](#)
- [Audio Introduction \(2021\)](#)
- [Success story 1 - Blue Ocean \(2021\)](#)
- [Success story 2 - Mas Corbella\(2021\)](#)
- [Success story 3 - MuMa Hostel\(2021\)](#)
- [Audio Success stories \(2021\)](#)
- [EU Ecolabel criteria and application process \(2021\)](#)
- [Audio Criteria and application process \(2021\)](#)



## 2. Erabakiaren iraungitze-data egiaztatzea

### Adibidea

2020ko abenduan egonik, ECOLABELen web-orrian egiaztatu genuen kategoria honetarako Erabakia 2017an argitaratu zela, eta 2022ko urtarrilaren 26a dela haren baliozkotasunaren epemuga.

Kasu horretan:

- 1) Dokumentazioa organo eskudunari aurkezteko eta ebaluatzeko behar den denbora kontuan hartuta, litekeena da etiketa baliozkotasunaren epemuga baino urtebete baino gutxiago lehenago ematea.
- 2) Batzuetan, zenbait urtetarako luzapena egiten da baliozkotasunaren epemugaren ondoren, baina baliteke ez jakitea zein diren zehatz-mehatz luzapen horren datak.

Horregatik, enpresak erabaki bat hartu beharko luke dokumentazioa orain aurkeztu edo 2022ko urtarrilera arte itxaron, irizpide berriak argitaratuta.

### EU Ecolabel-Holiday accommodation

With the EU Ecolabel, tourist accommodation and campsites offer an eco-friendly and high quality alternative to conventional hotels and campsites.

[Tourist Accommodation Page](#)

The EU Ecolabel holiday accommodation group covers tourist accommodation such as hotels and campsites.

The EU Ecolabel guarantees that certified accommodation has optimised environmental and waste management, and reduced energy consumption, water consumption, transport emissions and food waste.

Check out the dedicated Tourism Accommodation webpage to know what is in for consumers and tourism professionals. You will also find material to use in promotional activities

[Tourist Accommodation Catalogue](#)

### Tourist accommodation

Current Criteria [Commission Decision \(EU\) 2017/175 of 25 January 2017](#)

[Consolidated text](#)

Validity

Application pack / User manual [User Manual - Tourist Accommodation](#)

Miscellaneous [Final Technical Report \(2016\)](#)

Webinar:

- [Introduction on the EU Ecolabel \(2021\)](#)
- [Audio Introduction \(2021\)](#)
- [Success story 1 - Blue Ocean \(2021\)](#)
- [Success story 2 - Mas Corbella\(2021\)](#)
- [Success story 3 - MuMa Hostel\(2021\)](#)
- [Audio Success stories \(2021\)](#)
- [EU Ecolabel criteria and application process \(2021\)](#)
- [Audio Criteria and application process \(2021\)](#)



# 3. Zerbitzuak lege-baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzea

<b>Deskribapena</b>	Erabakiaren artikuluetan, eskatzen diren lege-baldintza guztiak ostatuak betetzen dituela egiaztatzea.
<b>Harremana/Lekua</b>	Erabakiaren barruan, normalean ERANSKINAREN hasieran, bete beharreko lege-baldintzak daude.
<b>Linkak</b>	<a href="https://ec.europa.eu/environment/ecolabel/products-groups-and-criteria.html">https://ec.europa.eu/environment/ecolabel/products-groups-and-criteria.html</a>

## EU Ecolabel-Holiday accommodation

With the EU Ecolabel, tourist accommodation and campsites offer an eco-friendly and high quality alternative to conventional hotels and campsites.

[Tourist Accommodation Page](#)

The EU Ecolabel holiday accommodation group covers tourist accommodation such as hotels and campsites.

The EU Ecolabel guarantees that certified accommodation has optimised environmental and waste management, and reduced energy consumption, water consumption, transport emissions and food waste.

Check out the dedicated Tourism Accommodation webpage to know what is in for consumers and tourism professionals. You will also find material to use in promotional activities

[Tourist Accommodation Catalogue](#)

## Tourist accommodation

Current Criteria	<a href="#">Commission Decision (EU) 2017/175 of 25 January 2017</a> <a href="#">Consolidated text</a>
Validity	30 June 2025
Application pack / User manual	<a href="#">User Manual - Tourist Accommodation</a>
Miscellaneous	<a href="#">Final Technical Report (2016)</a>

### Webinar:

- [Introduction on the EU Ecolabel \(2021\)](#)
- [Audio Introduction \(2021\)](#)
- [Success story 1 - Blue Ocean \(2021\)](#)
- [Success story 2 - Mas Corbella\(2021\)](#)
- [Success story 3 - MuMa Hostel\(2021\)](#)
- [Audio Success stories \(2021\)](#)
- [EU Ecolabel criteria and application process \(2021\)](#)
- [Audio Criteria and application process \(2021\)](#)



# 3. Zerbitzuak lege-baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzea

## Adibidea

Batzordearen 2017ko urtarrilaren 25eko 2017/175 (EB) Erabakiak, bere eranskinean, Egiaztapena eta Ebaluazioa atalean, baldintza hauek ezartzen ditu:

Aurretiazko baldintza gisa, zerbitzuek «turismo-ostatua» kokatuta dagoen herrialdeari edo herrialdeei dagozkien legeko betekizun guztiak bete beharko dituzte. Bereziki, honako hau bermatuko da:

1. Egitura fisikoak errespetatu egingo ditu tokiko, nazioko eta Batasuneko legeak eta erregelamenduak, honako arlo hauetan: energia-efizientzia eta isolamendu termikoa, ur-iturriak, uraren tratamendua eta hondakin-uren hustuketa (komun kimikoak barne), hondakinen bilketa eta ezabapena, ekipoen mantentze-lanak eta konponketa, osasun- eta segurtasun-xedapenak, baita paisaiarekin eta biodibertsitatearen kontserbazioarekin lotutako lege eta erregelamendu egoki guztiak ere.
2. Enpresa operatiboa da eta nazioko edo tokiko legeek eskatzen duten bezala erregistratuta dago, eta bertako langileak legez kontratatuta eta aseguratuta daude. Horretarako, langileek idatzizko kontratu bat izango dute estatuko araudiaren arabera, gutxienez hitzarmen kolektiboen bidez ezarritako nazioko edo eskualdeko gutxieneko soldata jasoko dute (hitzarmen kolektiborik ezean, langileek gutxienez legeko gutxieneko soldata jasoko dute nazio- edo eskualde-mailan), eta estatuko legeriarekin bat datorren ordutegia izango dute.

Eskatzaileak adierazi eta frogatuko du zerbitzuak baldintza horiek betetzen dituela, dokumentu-proben bidez edo egiaztapen independente baten bidez, datuen babesaren arloko legeria nazionalari kalterik egin gabe (adibidez, eraikitze lizentzia edo baimena, estatuko legeria eta eraikinaren alderdi horiei buruzko tokiko araudia nola betetzen diren azaltzen duten teknikari profesionalen adierazpenak, plan sozialaren kopia idatzia, kontratuen kopiak, langileen erregistroko aitorenak aseguru-sistema nazionalean, izenen dokumentazio/erregistro ofiziala eta langileen kopurua tokiko administrazioaren edo administrazioako agentearen Lan Ikuskaritzak); eta, bestalde, langileei ausazko elkarrizketa zuzenak egin ahal izango zaizkie *in situ* egindako bisitan.



# 4. Zerbitzuak ebaluatzeko eta egiaztatzeko irizpideak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea

## Deskribapena

Erabakiaren eranskinean, ostatuak honako baldintza hauek betetzen dituela egiaztatzea:

- Etiketa ekologikoa emateko irizpideak
- Ebaluatzeko eta egiaztatzeko baldintzak

## Harremana/Lekua

Erabakien eranskinek etiketa emateko bete behar diren irizpideak arautzen dituzte.

Enpresak irizpideari berari erantzuteaz gain, irizpide bakoitzaren "Ebaluazioa eta egiaztapena" paragrafoan irizpide hori egiaztatzeko agertzen den moduari ere erantzun beharko dio.

Ebaluazio eta ziurtapenen irizpideak eta eskakizunak betetzeari buruzko informazio zehatzagoa aurki daiteke, erabilera-eskuliburua kontsultatuta. Erabilera-eskuliburua (User manual) Europako Batzordearen webgunean eskuragarri dago.

## Linkak

<https://ec.europa.eu/environment/ecolabel/products-groups-and-criteria.html>

2.2.2017	ES	Diario Oficial de la Unión Europea	L 28/9
DECISIONES			
DECISIÓN (UE) 2017/175 DE LA COMISIÓN de 25 de enero de 2017 relativa al establecimiento de los criterios de la etiqueta ecológica de la UE para el alojamiento turístico [notificada con el número C(2017) 299] (Texto pertinente a efectos del EEE)			

### Criterio 1: Toxicidad para los organismos acuáticos

El volumen crítico de dilución del producto (VCD<sub>crónico</sub>) no superará los límites siguientes de dosificación de referencia.

Tipo de producto	VCD límite (l/l de agua de lavado)
Detergentes lavavajillas a mano	2 500

*Evaluación y verificación:* el solicitante facilitará el cálculo del VCD<sub>crónico</sub> del producto. En el sitio web de la etiqueta ecológica de la UE puede descargarse una hoja para calcular el valor del VCD<sub>crónico</sub>.



# 4. Zerbitzuak ebaluatzeko eta egiaztatzeko irizpideak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea

## Adibidea

Ebaluatzeko eta egiaztatzeko irizpideak eta baldintzak hemen daude jasota: **BATZORDEAREN 2017/175 (EB) ERABAKIA, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, turismo-ostaturako EBren etiketa ekologikoaren irizpideak ezartzeari buruzkoa.**

Bi irizpide mota daude: **NAHITAEZKOAK ETA HAUTAZKOAK**. Alde batetik, ostatuak nahitaezko irizpide guztiak bete behar ditu. Eta bestetik, ostatu motaren eta bertan ematen diren zerbitzu osagarrien arabera, ostatuak betetzen dituen hautazko irizpideekin (5. eta 6. artikulua) gainditu beharko den gutxieneko puntuazioa kalkulatu da.

Nire landetxeak bezeroentzako berdegunea duen igerilekua eta jatetxea baditu, puntuazio-taula hau hartuko da kontuan (4. artikulua):

*"1. 3. artikuluko b) letraren ondorioetarako, turismo-ostatuko zerbitzuak gutxienez 20 puntu lortu beharko ditu.*

*2. 1. apartatuaren arabera eskatzen den gutxieneko puntu kopurua ondoren adierazten diren puntuen bidez handituko da:*

- a) 3 puntu, turismo-ostatuko zerbitzuaren zuzendariak edo jabeak jatetxe-zerbitzuak eskaintzen dituenean;*
- b) 3 puntu, turismo-ostatuko zerbitzuaren zuzendariak edo jabeak bezeroen eskura berdeguneak jartzen dituenean;*
- c) 3 puntu, turismo-ostatuko zerbitzuaren zuzendariak edo jabeak jolas-instalazioak edo prestaketa fisikoa mantentzeko instalazioak eskaintzen dituenean, edo 5 puntu, jolas-instalazioak edo prestaketa fisikoa mantentzeko instalazioak egoiliarrik ez direnentzat irisgarriak diren ongizate-zentroak badira."*

Beraz, ostatuak nahitaezko irizpide guztiak eta 26 irizpide boluntario bete beharko ditu (20+3+3), 4. artikuluan adierazitakoaren arabera.

# 4. Zerbitzuak ebaluatzeko eta egiaztatzeko irizpideak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea

## Adibidea

Ebaluatzeko eta egiaztatzeko irizpideak eta baldintzak hemen daude jasota: **BATZORDEAREN 2017/175 (EB) ERABAKIA, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, turismo-ostaturako EBren etiketa ekologikoaren irizpideak ezartzeari buruzkoa.**

Gainera, irizpide eta betekizun horiek zabaldua eta xehetasunez azalduta daude erabilera-eskuliburuan.

## Criterion 25 - Ecolabelled services (up to 4 points)

### Criterion text:

All outsourced laundry and/or cleaning is carried out by a provider who has been awarded an ISO Type I label (2 points for each service, to a maximum of 4 points).

### Assessment and verification

The applicant shall provide appropriate evidence of ISO Type I certification by laundry and/or cleaning suppliers.

### EU Ecolabel-Holiday accommodation

With the EU Ecolabel, tourist accommodation and campsites offer an eco-friendly and high quality alternative to conventional hotels and campsites.

[Tourist Accommodation Page](#)

The EU Ecolabel holiday accommodation group covers tourist accommodation such as hotels and campsites.

The EU Ecolabel guarantees that certified accommodation has optimised environmental and waste management, and reduced energy consumption, water consumption, transport emissions and food waste.

Check out the dedicated Tourism Accommodation webpage to know what is in for consumers and tourism professionals. You will also find material to use in promotional activities

[Tourist Accommodation Catalogue](#)

### Tourist accommodation

Current Criteria [Commission Decision \(EU\) 2017/175 of 25 January 2017](#)  
[Consolidated text](#)

Validity  
30 June 2025

Application pack / User [User Manual - Tourist Accommodation](#)



ISO Type I Ecolabel is required for all outsourced laundry and/or cleaning services.

### Definitions

**ISO type I Ecolabel:** a voluntary, multiple-criteria based, third party program that awards a license that authorises the use of environmental labels on products indicating overall environmental preferability of a product within a particular product category based on life cycle considerations. Examples of ecolabels (further than EU Ecolabel) are the regional ecolabels as: Blue Angel, Nordic Swan, NF Environment, DGQA etc.



# 5. Organo eskudunarekin harremanetan jartzea, izapidetu beharreko espedientearen edo espedienteen irismena ezartzeko

<b>Deskribapena</b>	<p>Estatu kide bakoitzak Europako etiketa ekologikoaren ardura duen organo eskudun bat edo batzuk ditu. Organo hori arduratzen da eskatzen zaizkion Europako etiketa ekologikoen eskaerak izapidetzeaz.</p> <p>Eskaera egin aurretik Organo Eskudunarekin harremanetan jartzea gomendatzen da, espedienteak izan ditzakeen zalantzak argitzeko eta ordaindu beharreko tasa zehaztu ahal izateko.</p>
<b>Harremana/Lekua</b>	<p>Euskadirentzat, zein da organo eskuduna? Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila Ingurumen Jasangarritasun Sailburuordetza Harremanetarako: Gorane Ibarra - <a href="mailto:etiqueta.ecologica@ihobe.eus">etiqueta.ecologica@ihobe.eus</a> Tel. 944230743</p>
<b>Linkak</b>	<p>Organo eskudunen zerrenda: <a href="https://environment.ec.europa.eu/topics/circular-economy/eu-ecolabel/community-and-helpdesk_en#competent-bodies">https://environment.ec.europa.eu/topics/circular-economy/eu-ecolabel/community-and-helpdesk_en#competent-bodies</a></p>



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN  
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD  
Y MEDIO AMBIENTE

[https://www.euskadi.eus/web01-a2inguru/es/contenidos/informacion/ecoetiqueta/es\\_etiqueta/index.shtml#9198](https://www.euskadi.eus/web01-a2inguru/es/contenidos/informacion/ecoetiqueta/es_etiqueta/index.shtml#9198)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, TRANTSIZIO  
ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD

# 6. Dokumentazioa formatu egokian prestatzea

## Deskribapena

Enpresak dosier edo txosten bat prestatu behar du, Erabakia ebaluatzeko eta egiaztatzeko irizpideak eta baldintzak turismo-ostatuak betetzen dituela justifikatzeko.

Justifikazio-txosten hori egiteko, ECOLABELen webgunean Tourist Accommodation kategorian eskuragarri dauden dokumentu hauek berrikustea gomendatzen da.

- Batzordearen adierazpena eta zuzenketak ("Current criteria" epigrafea)
- Erabilera-eskuliburua ("Application pack / User manual" epigrafea)
- Checklist ("Application pack / User manual" epigrafea)
- Verification form ("Application pack / User manual" epigrafea)

Europako Batzordearen web-orrian eskuragarri dauden modeloak erabiltzeak azkartu egiten du organo eskudunak irizpideak betetzen ote dituen berrikustea.

## Harremana/Lekua

- Batzordearen adierazpena eta zuzenketak: "Current criteria" epigrafea.  
Gainerako laguntza-materiala: "Application pack/User manual" epigrafea.

## Linkak

<https://ec.europa.eu/environment/ecolabel/products-groups-and-criteria.html>

Aurkeztu beharreko informazio mota:

- Enpresa fabrikatzaileen eta hornitzaileen adierazpenak
- Egiaztatuta dauden erakundeek emandako ziurtagiriak
- Kalkuluak
- Beste ebidentzia batzuk

Irizpide bakoitzerako justifikazio gisa aurkeztu beharko den dokumentazioa adierazten du Erabakiak.

# 6. Dokumentazioa formatu egokian prestatzea

## Adibidea

Txostena egiteko, Europako Batzordearen web-orrian dauden dokumentuak (ingelesez daude) erabil daitezke gida gisa, edo **organo eskudunari gaztelaniazko eredu egokituak eska dakizkioke:**

- Checklist-a
- Verification Form-a

Hizkuntzari dagokionez, dokumentazioa hainbat hizkuntzatan ere aurkez daiteke, hala nola verification form ingelesez (Erabilera Eskuliburuaren erduei jarraituz) eta gainerako dokumentazioa eta txostenak gaztelaniaz edo euskaraz.

Applicant's Checklist for mandatory criteria		Mark when done	
Please, be sure that you are submitting the following file to the Competent Body:		Included	
Verification form.			
<b>Criterion 1: Basis of an Environmental Management System</b>			
<b>Documents to be submitted to the Competent Body:</b>		Included	Does not apply
If applicant is registered under EMAS:			
EMAS Registration.			
If applicant is certified according to ISO 14001			
ISO 14001 certificate.			
Report summarizing performances <u>with regards to</u> the targets defined in the action programme.			
If applicant is NOT registered under EMAS or certified according to ISO 14001			
Copy of the environmental policy.			
Copy of the action programme.			

TOURIST ACCOMMODATION SERVICE							
WARNING: THE APPLICANT MUST FILL ALL CELLS OF THE "ANSWERS/OPTIONS" COLUMN!							
SECTION	NO CRITERION	REQUEST	ANSWERS/OPTIONS (To be filled by applicant)	ANSWERS NOTE (To be filled by applicant)	DOCUMENTS TO BE ATTACHED	SCORE	TOTAL SCORE CRITERIA
General Management	23. EMAS registration, ISO certification of the tourist accommodation (up to 5 points)	Do you declare that the tourist accommodation is registered under the Community eco-management and audit scheme (EMAS)?	Yes		EMAS registration.	5	5
		Do you declare that the tourist accommodation is certified according to ISO 14001 standard?	Yes		ISO 14001 certification.	3	
		Do you declare that the tourist accommodation is certified according to ISO 50001 standard?	Yes		ISO 50001 certification.	2	
	24. EMAS registration or ISO certification of suppliers (up to 5 points)	Do you declare that at least two of the main suppliers or service providers of the tourist accommodation are local and registered with EMAS?	Yes		Evidence that at least two of the tourist accommodation main suppliers has an EMAS registration	5	5
		Do you declare that at least two of the main suppliers or service providers of the tourist accommodation are local and certified according to ISO 14001?	Yes		Evidence that at least two of the tourist accommodation main suppliers has an ISO 14001 certification	2	
		Do you declare that at least two of the main suppliers or service providers of the tourist accommodation are local and certified according to ISO 50001?	Yes		Evidence that at least two of the tourist accommodation main suppliers has an ISO 50001 certification	1,5	
25. Fontabellat		How many types of outsourced laundry or cleaning is carried out by a provider awarded	2		Appropriate evidence of ISO type I certification by laundry and/or cleaning suppliers		

# 7. Eskaera egitea eta dokumentazioa aurkeztea

## Inguruneten bidez

<b>Deskribapena</b>	Espedientea osorik izapidetzeko (eskaera, informazioa zabaltzea, kontratuak eta ziurtagiriak), Ingurunet, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen-kudeaketari buruzko Informazio eta Tramitazio Sistema, erabiliko da. Sistema horren bidez, eskaera egiten den unean, justifikazio-txostena bidaliko da, eta enpresaren jarduera-lizentzia aurkeztuko da.
<b>Harremana/Lekua</b>	Ingurunet, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen-kudeaketari buruzko Informazio eta Tramitazio Sistema
<b>Linkak</b>	Ingurunetera sarrera: <a href="https://www.euskadi.eus/ingurunet/web01-s2ing/es/">https://www.euskadi.eus/ingurunet/web01-s2ing/es/</a>



## 8. Tasak ordaintzea

### Deskribapena

Organo eskuduna espedientea aztertzen hasi aurretik, tasak ordaindu behar dira.

Tarifa desberdinak daude enpresaren tamainaren arabera, eta Europar Batasuneko Ingurumen Kudeaketa eta Auditoretzako Sistemari (EMAS) erregistratuta dagoen edo ISO 14001 arauaren araberrako ziurtagiria duen kontuan hartuta.

Enpresa mota	Eskaera-/berritze-tasa eta luzatze-/aldatze-tasa			Urteko tasa	Ikuskapen-tasa
	Euro	EMASekin	ISO 14001ekin		
Estandarra	348,04	-% 30	-% 15	0	0
Ete-ak	227,48	-% 30	-% 15		
Mikroenpresak	227,48	-% 30	-% 15		

Tasak 2009ko azaroaren 25eko 66/2010 (EE) Erregelamenduaren 9 (4) artikulua eta EAEko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoari buruzko Legeak arautzen dituzte, eta urtero eguneratzen da.

### Harremana/Lekua

Ingurunet, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen-kudeaketari buruzko Informazio eta Tramitazio Sistema. Tasa lehenetsia aldatu egingo da espediente kopuruaren eta hobari aplikagarrien arabera.


### Linkak

Ingurunetara sarrera:

<https://www.euskadi.eus/ingurunet/web01-s2ing/es/>

# 9. Organo eskudunaren bisita jasotzea

<b>Deskribapena</b>	Organo eskudunak bisita bat egingo du in situ ostatura, irizpideak betetzen direla aurrez aurre egiaztatzeko. Bisita hori justifikazio-txostena aurkeztu ondoren eta ekoetiketa eman aurretik egingo da.
<b>Harremana/Lekua</b>	Bisitan irizpide guztiak betetzen direla egiaztatuko da, hala nola: <ul style="list-style-type: none"><li>• Kanpoko berokuntzako eta aire girotuko aparatuak</li><li>• Ikatza eta berokuntzako gasolioak</li><li>• Hondakinen prebentzioa: jatetxe-zerbitzuetako hondakinak murrizteko plana</li><li>• Hondakinen prebentzioa: erabili eta botatzeko gaiak</li><li>• Hondakinak sailkatzea eta birziklatzera bidaltzea</li><li>• Gizarte-plana</li><li>• Pestizidak saihestea</li></ul>
<b>Linkak</b>	-



# 10. Organo eskudunak ezarritako errekerimenduei —halakorik balego— erantzutea

<b>Deskribapena</b>	<p>Organo eskudunak eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa berrikusiko du, eta, hala badagokio, eskabidea entregatzen denetik bi hilabete igaro baino lehen, zuzenketa-errekerimendu bat bidaliko dio enpresari. Bertan, aurkeztu beharreko informazioa eta/edo dokumentazio gehigarria edo egin beharreko zuzenketak deskribatzen ditu.</p> <p>Enpresak sei hilabete ditu eskatutako informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko.</p>
<b>Harremana/Lekua</b>	<p>Akatsak zuzentzeko errekerimendua ingurunet bidez bidaliko zaio enpresari, eta enpresak bide beretik bidali beharko ditu eskatutako informazioa eta dokumentazioa.</p>
<b>Linkak</b>	<p>Ingurunetera sarrera: <a href="https://www.euskadi.eus/ingurunet/web01-s2ing/es/">https://www.euskadi.eus/ingurunet/web01-s2ing/es/</a></p>



# 11. Europako Etiketa Ekologikoa onartzea (egiaztapen-txostena)

<b>Deskribapena</b>	<p>Dokumentazioa zuzendu ondoren (halakorik beharrezkoa izanez gero), organo eskudunak egiaztapen-txosten bat idatziko du, eta, bertan, ostatuak berau barne hartzen duen produktu-kategoriari dagozkion baldintzak betetzen dituen jasoko da.</p> <p>Txosten hori izango da ostatu jakin bati Europako Etiketa Ekologikoa eman edo ukatu izana justifikatzeko oinarria.</p> <p>Ostatuak ebaluazio eta egiaztatze irizpideak eta baldintzak betetzen ez baditu, enpresari jakinaraziko zaio ez zaiola Europako Etiketa Ekologikoa emango.</p>
<b>Harremana/Lekua</b>	<p>Irizpideak betetzen direla egiaztatze txosten bat bidaliko zaio enpresari ingurunet bidez.</p>
<b>Linkak</b>	<p>Ingurunetera sarrera: <a href="https://www.euskadi.eus/ingurunet/web01-s2ing/es/">https://www.euskadi.eus/ingurunet/web01-s2ing/es/</a></p>



# 12. Ziurtagiria eta kontratua ematea

## Deskribapena

Etiketa emateko ezarritako baldintza eta irizpide guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren, etiketa modu telematikoan helaraziko zaio enpresari, Inguruneten bidez:

- Etiketa ematen denaren kontratu arautzailea, Ingurumen Jasangarritasun Sailburuordetzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzak sinatua. Bertan, Europako etiketa ekologikoa erabiltzeko baldintzak jasotzen dira.
- Etiketa eman izanaren ziurtagiria, Ingurumen Jasangarritasun Sailburuordetzak sinatua.

Bi dokumentu horietan, lizentziak estalitako ostatuak eta zerbitzuak jasotzen dira, eta dagokien ziurtagiri-zenbakia ematen da.

## Harremana/Lekua

Ingurunet

## Linkak


Ingurunetera sarrera:

<https://www.euskadi.eus/ingurunet/web01-s2ing/es/>



# 13. Enpresak kontratua sinatuta itzultzea

<b>Deskribapena</b>	<p>Ostatuak, organo eskudunak sinatutako kontratua jaso ondoren, dokumentu hori deskargatu eta sinatu egin behar du. Hori ezinbesteko izapidea da; izan ere, bi aldeek (administrazioak eta enpresa eskatzaileak) sinatu behar dute kontratua.</p>
<b>Harremana/Lekua</b>	<p>Kontratua ingurunet bidez sinatzen da.</p> <p>Erabilera-eskuliburu bat dago, kontratua nola sinatu azaltzen duena, urratsez urrats.</p>
<b>Linkak</b>	<p>Erabilera-eskuliburua</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="http://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/s_autho_201854122945009/es_def/adjuntos/Ingurunet_FirmaContra toEcoetiqueta_ManualUsuario.pdf">http://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/s_autho_201854122945009/es_def/adjuntos/Ingurunet_FirmaContra toEcoetiqueta_ManualUsuario.pdf</a></li></ul> <p>Ingurunetera sarrera:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="https://www.euskadi.eus/ingurunet/web01-s2ing/es/">https://www.euskadi.eus/ingurunet/web01-s2ing/es/</a></li></ul>



# 14. Ostatuak EBren katalogoan sartzea

## Deskribapena

Enpresa eskatzaileek, puntu horretara iritsitakoan, Europako Batzordearen ostatuertako katalogo ofizialean eskatu behar dute alta. Jarraitu beharreko urratsak:

- Erabiltzaile bat sortzea ECASen (halakorik eduki ezean).
- Administrazio-datuei alta ematea.
- Ecolabel lizentzia eskatzea, enpresa eskatzailearen datuak, eskaeraren xehetasunak eta aurkeztutako produktuak/zerbitzuak adierazita.

Katalogoan behin betiko onartu eta argitaratzeko, prozesu horretan ostatuak bere organo eskuduna aukeratu beharko du (organo eskuduna hautatu ondoren "gordetzea" gomendatzen da, behin betiko onartzeko bidali aurretik).

Katalogoan gehiago ikusteko, garrantzitsua da ostatuaren argazkiak jartzea.

Enpresak eskaera izapidetu ondoren, organo eskudunak oniritzia emango dio eskaerari, espedientearen ebazpenaren arabera, eta, azkenean, katalogoan argitaratuko da.

## Harremana/Lekua

"ECAT\_Admin - Manual de uso para titulares de licencia" PDFn urrats guztiak deskribatzen dira

## Linkak

KATALOGOA: [https://environment.ec.europa.eu/topics/circular-economy/eu-ecolabel/eu-ecolabel-tourist-accommodation/eu-ecolabel-tourist-accommodation-catalogue\\_en](https://environment.ec.europa.eu/topics/circular-economy/eu-ecolabel/eu-ecolabel-tourist-accommodation/eu-ecolabel-tourist-accommodation-catalogue_en)

ERABILERA-ESKULIBURUA:

- [https://environment.ec.europa.eu/system/files/2023-11/ECAT%20user%20manual%20for%20applicants%20and%20licence%20holders\\_2023-11.pdf](https://environment.ec.europa.eu/system/files/2023-11/ECAT%20user%20manual%20for%20applicants%20and%20licence%20holders_2023-11.pdf)

# 14. Ostatuak EBren katalogoan sartzea

## Adibidea

Horrela, ostatua bistaratzen da Europako Batzordeko katalogoan:




**Ecolabel AGROTURISMO ABAIENEA**  
Hotel / tourist accomodation details




●●○○○

 Licence No.:	ES-EU/051/00019
 Country:	Spain
 Company:	AGROTURISMO ABAIENEA
 Address:	Calle Erea 4 01195, Vitoria-Gasteiz
 Phone:	945 290640 / 656 758 673
 Website:	<a href="http://abaienea.es">http://abaienea.es</a>


KATALOGOA: [https://environment.ec.europa.eu/topics/circular-economy/eu-ecolabel/eu-ecolabel-tourist-accommodation/eu-ecolabel-tourist-accommodation-catalogue\\_en](https://environment.ec.europa.eu/topics/circular-economy/eu-ecolabel/eu-ecolabel-tourist-accommodation/eu-ecolabel-tourist-accommodation-catalogue_en)






**Hura lortzearen  
abantailak eta  
erabiltzeko  
modua**




# Hura lortzearen abantailak eta erabiltzeko modua

- Ingurumen-etiketen erabilera areagotzeak (Europako Etiketa Ekologikoa, adibidez) ingurumena errespetatzen duten produktuen eta zerbitzuen onurei buruzko kontzientzia handiagoa izatea ahalbidetzen du. Horrek **produktu eta zerbitzu ekologikoen merkaturako giro ona** sortzen laguntzen du.
  - Europako Etiketa Ekologikoa **Europar Batasun osoan ezagutu daitekeen etiketa fidagarria** da (ISO 14024 araua betetzen du).
- 




# Hura lortzearen abantailak eta erabiltzeko modua



- Produktu edo zerbitzu batek Europako Etiketa Ekologikoaren irizpideak betetzen dituela berrikustean, enpresa fabrikatzaile edo jabe batek bere **produktuak eta zerbitzuak optimizatze**ko modu berriak —aurrezpen ekonomikoak ekar ditzaketenak— aurki ditzake.
  - Europako Etiketa Ekologikoa lortzeko irizpideak gaur egun merkatuan dauden produktuen eta zerbitzuen % 10ek eta % 20k bete ahal izango dituztela bermatzeko garatu dira. Beraz, ekoetiketa hori lortzen duen produktu edo zerbitzu batek erakusten du "**Best in Class**" **produktu/zerbitzuen** multzo horren barruan dagoela.
  - ETEentzako eta mikroenpresentzako deskontuak daude tasetan.
- 



**Logoa nola  
erabili**



# Logoa nola erabili marketin-jarduketetan

- Logoaren estiloa (lorea karratuaren barruan) ezin da aldatu.
- Ezin da lorea bakarrik erabili, logotipoa elementu multzo bat da.
- Logoak lizentzia zenbakia duen testu-koadroarekin batera agertu behar du.
- Logotipoa ezin da erabili Etiketa Ekologikoa ez duten enpresaren produktu edo zerbitzuekin lotuta, edo ezin da erabili nahastea eragiteko sustapen-material berean Etiketa duten eta Etiketarik ez duten produktuak edo zerbitzuak agertzen direnean.



A large circle with a blue-to-orange gradient is the central focus. To its top-left is a small orange plus sign, and to its top-left is a small orange circle. To its bottom-right is a small orange circle. On the right side of the slide, there is a vertical line with a blue-to-orange gradient.

# Logoa nola erabili marketing- jarduketetan

Etiketari buruzko informazioa honako mezu hau erabiliz eman daiteke:

**"EBren Etiketa Ekologikoa ingurumen-bikaintasuneko etiketa bat da, beren bizi-zikloan ingurumen-estandar altuak betetzen dituzten produktu eta zerbitzuei ematen zaiena: lehengaiak erauztetik hasi eta azken ekoizpena, banaketa eta ezabaketaraino."**

# Logoa oker erabiltzea marketin-jarduketetan



Logoak nahitaezko laukian joan behar du beti



Logoak laukiaren ertzak biribilduta eduki behar ditu, eta proportzio karratua gorde behar du



Logoak proportzionaltasuna gorde behar du, eta ez da distortsionatuta edo moztuta agertu behar



Logoak baimendutako koloreak izan behar ditu

Sinbolo osoa lizentzia zenbakiarekin batera agertzen bada, lizentzia zenbakia ertz biribilak dituen lauki urdin batean agertu behar da, eta "EU Ecolabel:" testua aurrean duela



# Logoa zuzen erabiltzea marketin-jarduketetan

Logoak baimendutako koloreak izan behar ditu, eta laukiaren barruan joan behar du.

Logoa bakarrik aurkez daiteke, edo (ahal bada) lizentzia zenbakiarekin batera, marketin-jarduketa etiketa ekologikoa duen establezimenduan egiten bada. Kasu horretan, lizentziaren zenbakiak bere laukian joan behar du eta "EU Ecolabel:" hitzak jarri behar zaizkio aurretik.



# Nola erabili logoa plaka eta banderetan



**Plaka** bat jarriz gero, honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Neurriak: 20 cm x 20 cm
- Irudia kristalean: 14,5 cm x 14,5 cm
- Lodiera: 0,8 cm
- Torlojuen tamaina: S8
- Izkinatik dagoen distantzia: 1 cm



**Bandera** bat jarriz gero, honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Neurriak: 100 cm x 150 cm

# Araudi erregulatzailea

## Europako araudia

- [66/2010 \(EE\) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko azaroaren 25koa, EBren etiketa ekologikoari buruzkoa.](#)

## Estatuko araudia

- [234/2013 Errege Dekretua, apirilaren 5koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 66/2010 \(EE\) Erregelamendua aplikatzeko arauak ezartzen dituen \(Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 66/2010 \(EE\) Erregelamendua, 2009ko azaroaren 25koa, Europar Batasuneko etiketa ekologikoari buruzkoa.](#)

## Autonomia-erkidegoko araudia

- [EHAA 06928/2008 zk.](#)
- [5/2011 Legea, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea aldatzeko dena.](#)

Eskaera-epea: Irekia urte osoan



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, TRANTSIZIO  
ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD